



---

Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua

## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>ALDAKETEN KONTROLA</b>	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>FAKTURAK KONTSULTATZEKO APLIKAZIOAREN AURKEZPENA</b>	<b>5</b>
<b>3</b>	<b>NOLA SARTU APLIKAZIOAN</b>	<b>5</b>
3.1	Fakturak norentzako kontsultatzen diren hautatzea	6
<b>4</b>	<b>APLIKAZIOAREN MENUA</b>	<b>9</b>
<b>5</b>	<b>JASOTAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA</b>	<b>11</b>
5.1	Jasotako fakturen iragazkia	11
5.2	Jasotako fakturen zerrenda	12
5.3	Jasotako fakturak Excelera esportatzea	12
<b>6</b>	<b>BIDALITAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA</b>	<b>12</b>
6.1	Bidalitako fakturen iragazkia	13
6.2	Bidalitako fakturen zerrenda	14
6.3	Bidalitako fakturak Excelera esportatzea	15
<b>7</b>	<b>FAKTURAREN XEHETASUNAK</b>	<b>15</b>
<b>8</b>	<b>FAKTURAREN ERROREAK</b>	<b>17</b>
<b>9</b>	<b>ZUZENDU: FAKTURA ALDATZEA</b>	<b>18</b>
9.1	Fakturaren datuak	18
9.2	Bezeroa/Hartzailea	18
9.3	Faktuaren goiburua	19

---

9.4	Fakturaren datuak II.....	20
9.5	Banakapenak .....	20
9.6	Oina .....	21
9.7	Formularioko botoiak .....	22
<b>10</b>	<b>OSATU: INFORMAZIO OSAGARRIA GEHITZEA/BALIOGABETZEA .....</b>	<b>23</b>
10.1	Informazio osagarria.....	23
10.2	Formularioko botoiak. ....	24
<b>11</b>	<b>ERROREAK KONTSULTATZEA.....</b>	<b>25</b>
11.1	Iragazkia .....	25
11.2	Erroreen zerrenda .....	26
<b>12</b>	<b>AITORPENETARAKO ZERRENDA .....</b>	<b>28</b>
12.1	Aitorpenetarako zerrenda eskatzea.....	28
12.2	Aitorpenetarako zerrendaren edukia.....	29
<b>13</b>	<b>AITORPENETARAKO LABURPENA .....</b>	<b>33</b>
13.1	Datuen eskuratze data .....	33
13.2	Aldiaren kalkulua.....	34
13.3	Irizpide komunak .....	35
13.4	Aitorpenetarako laburpena bistaratzea.....	36
<b>14</b>	<b>FAKTURAK BALIOGABETZEA.....</b>	<b>39</b>
<b>I.</b>	<b>ERANSKINA: ERRORE OSO LARRIAK .....</b>	<b>40</b>

## 1 ALDAKETEN KONTROLA

Data	Bertsioa	Egindako aldaketari buruzko oharra
2024/04	1.3	Bezzeroaren kodea aldatzeko aukera ematea. Banakapenen zenbatekoak aldatzeko aukera ematea. Faktura erraztuen multzoan lehen eta azken faktura eskuratzea. <i>Erregistro liburua</i> izena aldatu eta <i>Aitorpenetarako zerrenda</i> jarri da.
2024/06	1.4	Aitorpenetarako zerrenda: Sortzapen dataren kalkuluaren azalpena.
2024/07	1.5	Atal berria <i>Datu fiskalak</i> menuaren barruan: Aitorpenetarako laburpena.
2025/01	1.6	Faktura bat baliogabetzeko funtzionalitate berria.
2025/02	1.7	Ikonoa gehitu da fakturen zerrendan (faktura zuzena, akats larriak edo oso larriak dituen faktura).
2025/04	1.8	Jasotzearen eta erantzunaren XMLak deskargatzea faktura baten xehetasunetik.
2025/09	1.9	Aitorpenetarako laburpenean, 390 ereduaren informazioa eta dagozkion autolikidazioen informazioa bistaritzen dira. Fakturaren hartzailearen posta kodea aldatu daiteke. Fakturak aldatzeko sarbidea gaitu da erroreen kontsultan.
2026/02	1.10	Jasotako fakturak kontsultatzeko funtzionalitate berria.

## 2 FAKTURAK KONTSULTATZEKO APLIKAZIOAREN AURKEZPENA


Bidalitako fakturak kontsultatzeko aukera ematen duen web aplikazioa, bai fakturaren jaulkitzailea, bai haren ordezkari boluntarioa izanez gero (2d maila).

FakturAraba aplikazioa erabiliz bidalitako fakturak eta beste edozein TicketBAI fakturazio software erabiliz bidalitako fakturak kontsulta daitezke.

Gainera, bezero/hartzaile gisa jasotako fakturak kontsulta daitezke, norberaren izenean sartuz gero.

## 3 NOLA SARTU APLIKAZIOAN

Aplikaziora sartzean, Izenperen pantaila batera joaten da. Bertan, erabiltzaileak bere burua autentifikatu behar du. Ondorengo irudian sarbide aukerak daude ikusgai. Sartzeko moduei edo horiek lortzeko erari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo Izenperen webgunera: <https://www.izenpe.eus>.



The screenshot shows the 'Identificación electrónica de Euskadi' (Electronic Identification of Euskadi) interface. At the top is the 'izenpe' logo. Below it, the text reads: 'Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava solicita su autenticación.' (Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava requests your authentication.) and 'Seleccione cuál de los siguientes medios de identificación desea utilizar:' (Select which of the following identification methods you wish to use:). There are two selection options: 1. 'BAKQ' with the subtext 'DNI/NIE, contraseña y coordenadas' and 'DNI/NIE, contraseña y código SMS'. 2. 'Certificados digitales' (Digital certificates). Below these options is a link: '¿Cómo solicitar BakQ?' (How to request BakQ?). At the bottom right is a 'Cancelar' (Cancel) button.

Aukera bakoitza autentifikazio metodo bati dagokio.

- **BAKQ:** NANaren eta pasahitzaren bidez identifikatzeko metodoa.
- **Ziurtagiri digitalak:** Metodo hau erabiltzeko, ziurtagiri elektronikoko bat eduki behar da.

### 3.1 Fakturak norentzako kontsultatzen diren hautatzea

Honako hauek sar daitezke fakturak kontsultatzera:

- fakturen jaulkitzailea bera,
- 2d mailako borondatezko ordezkari bat, jaulkitzailearen izenean jardungo duena,
- edo gestoria baten edo hirugarren baten izenean jarduten duen baimenduna, hau da, jaulkitzailearen borondatezko ordezkaria.

Behin fakturak kontsultatzeko aplikazioan sartuta, konektatutako pertsonaren identifikazioa ikusten da goiburuan. Pantaila horretan, fakturak nor kontsultatzen ari den hautatu behar da.

1. Fakturak zure izenean kontsultatu nahi badituzu, *NIRETZAT* aukera sakatuz adierazi beharko duzu. Hala eginez gero, bezero gisa agertzen zaren eta Ogasunean jaso diren fitxategien zerrenda eskuratu ahal izango duzu.



#### Fakturak kontsultatzea

Web aplikazio honetan hauek egin ditzakezu:

- 1.- Ogasunean jaso diren fakturak egiaztatu ditzakezu, baldin eta horien jaulkitzailea bazara. 2D mailako zure borondatezko ordezkariak ere eskuratu ahal izango du informazio hori.
- 2.- Ogasunean jaso diren TicketBAI fitxategien zerrenda eskuratu ahal izango duzu, baldin eta zure ziurtagiriarekin bezero/hartzaile bazara horietan.
- 3.- Zergen autolikidazioak egiteko tresnak eskuratu ahal izango dituzu: Aitorpenetarako zerrenda eta Aitorpenetarako laburpena.

Hasi aurretik, informazio gehiago behar dugu

Norentzat egiten ari zara izapidea?

 NIRETZAT PROFESIONAL FICTICIO ACTIVO - 99999972C	 BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza) ?	 BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena) ?
--	---	---

2. Borondatezko ordezkari gisa jardun nahi baduzu, eta faktura beste pertsona batentzat kontsultatu, *BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)* aukera sakatuz adierazi beharko duzu. Hala eginez gero, ezingo duzu eskuratu baimen emaila bezero gisa agertzen den eta Ogasunean jaso diren fitxategien zerrenda.



## Fakturak kontsultatzea

Web aplikazio honetan hauek egin ditzakezu:

- 1- Ogasunean jaso diren fakturak egiaztatu ditzakezu, baldin eta horien jaukitzailea bazara. 2D mailako zure borondatezko ordezkariak ere eskuratu ahal izango du informazio hori.
- 2- Ogasunean jaso diren TicketBAI fitxategien zerrenda eskuratu ahal izango duzu, baldin eta zure ziurtagiriarekin bezero/hartzaile bazara horietan.
- 3- Zergen autolikidazioak egiteko tresnak eskuratu ahal izango dituzu: Aitorpenetarako zerrenda eta Aitorpenetarako laburpena.

Hasi aurretik, informazio gehiago behar dugu

Norentzat egiten ari zara izapidea?

 NIRETZAT PROFESIONAL FICTICIO ACTIVO - 99999972C	 BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza) ?	 BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena) ?
--	---	---

Ondoren, pantaila bat agertuko zaizu, non ordezkatu nahi duzun pertsonaren IFZ idatzi behar baituzu:

Izapidea egingo duzu, honela: **BESTE PERTSONA BATENTZAT**

Adierazi, mesedez, **ordezkatuaren** NANA/IFZa:

Ordezkatuaren NANA/IFZa \*

< Itzuli

Jarraitu >

Ordezkatuaren NAN/IFZ sartu beharko duzu, eta, *Jarraitu* botoia sakatzean, 2d mailako borondatezko ordezkaria zaren egiaztatuko da. Ordezkaritza baliozkoa bada, baieztapen pantaila bat agertuko da ordezkaturako erabiltzailearen informazioarekin. Baiesteko, *Jarraitu* botoia sakatu behar duzu.

Ordezkatuaren NAN/IFZ sartu beharko duzu, eta, Jarraitu botoia sakatzean, 2d mailako borondatezko ordezkaria zaren egiaztatuko da. Ordezkaritza baliozkoa bada, baieztapen pantaila bat agertuko da ordezkaturako erabiltzailearen informazioarekin. Baiesteko, Jarraitu botoia sakatu behar duzu.

Izapidea egingo duzu, honela: hau **ORDEZKATZEN**:

AITOR SALAZAR - YYYYYYYYY

< Itzuli

Jarraitu >

(Borondatezko ordezkariari buruzko informazioa:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/borondatezko-ordezkaritza>)

3. Gestoria baten edo hirugarren baten baimendu gisa jardun nahi izanez gero, **BAIMENDU GISA** (*Gestoria edo hirugarren batena*) aukera sakatuz adierazi beharko duzu. Hala eginez

gero, ezingo duzu eskuratu baimen emailea bezero gisa agertzen den eta Ogasunean jaso diren fitxategien zerrenda.

## Fakturak kontsultatzea

Web aplikazio honetan hauek egin ditzakezu:

- 1- Ogasunean jaso diren fakturak egiaztatu ditzakezu, baldin eta horien jaulkitzailea bazara. 2D mailako zure borondatezko ordezkariak ere eskuratu ahal izango du informazio hori.
- 2- Ogasunean jaso diren TicketBAI fitxategien zerrenda eskuratu ahal izango duzu, baldin eta zure ziurtagiriarekin bezero/hartzaile bazara horietan.
- 3- Zergen autolikidazioak egiteko tresnak eskuratu ahal izango dituzu: Aitorpenetarako zerrenda eta Aitorpenetarako laburpena.

Hasi aurretik, informazio gohiago behar dugu

Norentzat egiten ari zara izapidea?

 NIRETZAT PROFESIONAL FICTICIO ACTIVO - 99999972C	 BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkartza) ?	 BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena) ?
--	--	---

Pantaila bat agertuko da baimena eman dizun ordezkariaren eta ordezkaturako pertsonaren NAN/IFZk sartzeko:

Izapidea egingo duzu, honela: BAIMENDU GISA

Adierazi, mesodez, ordezkariaren NANa/IFZa:	Adierazi, mesodez, ordezkatuaren NANa/IFZa:
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Ordezkariaren NANa/IFZa *	Ordezkatuaren NANa/IFZa *


[← Itzuli](#) [Jarraitu >](#)

Datu horiek sartu, eta *Jarraitu* botoia sakatu beharko duzu. Konektaturako erabiltzailea adierazitako ordezkariak baimendu duen egiaztatuko da, bai eta ordezkaria ordezkatuaren 2d mailako borondatezko ordezkaria den ere.

Egiaztapen hori egin ondoren, ordezkariaren eta ordezkatuaren datuak dituen baieztapen pantaila agertuko da.



Baietsi ondoren, aplikazioaren pantaila nagusira joaten da.



Konektatutako erabiltzailea borondatezko ordezkari edo baimendu gisa ari bada, informazio hori agertuko da aplikazioaren goiburuan.

*Amaitu ordezkaritza* edo *Amaitu* estekaren bidez, hasierako pantailara itzuliko zara, eta berriro aukeratu ahal izango duzu norentzat kontsultatuko duzun faktura.

## 4 APLIKAZIOAREN MENUA

Aplikazioaren menuan aukera hauek daude:

- **Bidalitako fakturak kontsultatzea**

Aukera honen bidez, FakturArabarekin nahiz beste edozein TicketBAI fakturazio software erabiliz Arabako Foru Aldundira bidali diren fakturak kontsulta daitezke, baldin eta bidalketaren emaitza *Jasota* izan bada.

- **Jasotako fakturak kontsultatzea**

Aukera honen bidez, erabiltzaileak jaso dituen eta bezero/hartzaile gisa agertzen den fakturen zerrenda eskuratu daiteke. Norberaren izenean sartzen denean bakarrik bistaratzen da aukera hau; alegia, norberaren ziurtagiriarekin sartuz gero eta "NIRETZAT" aukera aukeratzuz gero.

- **Erroreak kontsultatzea**

Aukera honetan, bidalitako fakturak jasotzean sortu diren erroreak kontsulta daitezke, eta errore ohar horien eraginpeko fakturen zerrenda kontsulta daiteke, berrikusteko.

- **Datu fiskalak / Aitorpenetarako zerrenda / Aitorpenetarako laburpena**

*Fakturak kontsultatzeako aplikazioaren eskuliburua*

Aukera honetan informazio hau eskuratu daiteke:

- Bidalitako fakturen laburpenen excel formatuko zerrendak, sortzapen dataren araberakoak.
- Aldiaren araberako laburpena: BEZaren 303/390 ereduak egiteko informazio lagungarria (ez, 322/353 ereduak) eta autolikidazioei buruzko informazioa. Jaulkitzaile gisa jasotako fakturak jasotzen ditu. Ez ditu jasotzen bezero/hartzaile gisa jasotako fakturei buruzko informaziorik.


## 5 JASOTAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA

Aplikazioaren pantaila nagusia da, eta goiko menuko aukera hautatuz sar daiteke bertara.

### JASOTAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA. BEZEROA NAIZ

#### 5.1 Jasotako fakturen iragazkia

Behin sartuta, goiko aldean iragazki bat bistaratuko da, bilaketak iragazi ahal izateko. Behealdean, adierazitako iragazkiaren arabera fakturen zerrenda agertuko da.



The screenshot shows a web form titled 'Jasotako fakturak kontsultatzea'. It has three main sections: 'Jaulkitzailearen IFZ' with a date field set to '2026/01/03', 'Sailaren izena' with a date field set to '2026/02/02', and 'Faktura zenbakia'. Below these fields is a search button labeled 'Bilatu' with a magnifying glass icon. At the bottom, there is a navigation bar with several menu items: 'JASOKITZALEA', 'JAUKITZE DATA', 'SAILA/ZENBAKIA', 'ZENBATEKOA, GUTIRA', 'ZERGA KUOTA', and 'EGOKERA'. A message at the bottom of the form reads: 'Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke'.


Besterik adierazi ezean, iragazkiak azken 30 egunetako jaulkitze data duten fakturak kargatzen ditu.

Iragazkia aplikatuz egin nahi izanez gero bilaketa, nahikoa da iragazkian nahi diren datuak betetzea. Gehienez ere urte natural bateko aldien arabera iragazi daiteke.

Iragazkiko edozein datu aldatzean, kontsultaren emaitza husten da.

Hauek dira iragazkiak dituen eremuak:

- **Jaulkitzailearen IFZ:** Fakturak iragazteko erabili nahi den faktura jaulkitzailearen IFZ adierazi behar da.
- **Sailaren izena:** Fakturak iragazteko erabili nahi den sailaren izena idatzi behar da.
- **Faktura zenbakia:** Aurkitu nahi den fakturaren zenbakia idatzi behar da.
- **Jaulkitze data: noiztik:** Egutegian aukeratu behar da data. Data hau soilik aukeratuz gero, aukeratutako jaulkitze data edo geroagokoa duten fakturak bakarrik bilatuko ditu aplikazioak.
- **Jaulkitze data: noiz arte:** Egutegian aukeratu behar da data. Data hau soilik aukeratuz gero, aukeratutako jaulkitze data edo lehenagokoa duten fakturak bakarrik bilatuko ditu aplikazioak.

 Iragazkian nahi diren datuak sartu ondoren, Bilatu botoia sakatu behar da iragazkiaren arabera jasotako fakturen zerrenda bistartzeko.

Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua

## 5.2 Jasotako fakturen zerrenda

Aukeratutako iragazki irizpideen arabera aurkitutako jasotako fakturen zerrenda erakusten da.

Datu hauek agertzen dira zerrendan:

- Jaulkitze data.
- Jaulkitzailearen IFZ, izen-abizenak/sozietatearen izena.
- Faktura saila/zk.
- Fakturatutako zenbatekoa, guztira.
- Zergaren kuota.
- Egoera.

Egoera hauetako bat izan daiteke:

1. Jasota
2. Baliogabetuta (fakturaren baliogabetzea jaso dela adierazten du)
3. Ordeztua (faktura ordeztu duen geroagoko faktura bat dagoela adierazten du) - Esaterako, ordezeko fakturak.
4. Zuzendua (faktura aldeengatik edo ordezkatzeko bidez zuzendu duen faktura zuzentzaile bat dagoela adierazten du).

## 5.3 Jasotako fakturak Excelera esportatzea

Zerrendan agertzen diren jasotako faktura guztien informazioa Excel fitxategi batean esporta daiteke.



Hasiera

1

Amaiera

1000

Hautaketa 1.000 faktura baino gehiagokoa bada, fakturak 1.000ko multzoetan deskargatzen joan daiteke, Excel botoia hurrenez hurren sakatuz, fakturen guztizko kopurua osatu arte.

## 6 BIDLITAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA

Aplikazioaren pantaila nagusia da, eta goiko menuko aukera hautatuz sar daiteke bertara.

**BIDLITAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA**

## 6.1 Bidalitako fakturen iragazkia


Behin sartuta, goiko aldean iragazki bat bistaratu da, bilaketak iragazi ahal izateko. Behealdean, adierazitako iragazkiaren arabeko fakturen zerrenda agertuko da.

Fakturak kontsultatzea

Sailaren izena	Faktura zenbakia
Jaulkitze data/noiztik 2025/03/10	Jaulkitze data/noiz arte 2025/04/09

Fakturak

Guztiak  Erroreak dituztenak  Errorerik gabekoak

 [Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke](#) [Bilatu](#)

Besterik adierazi ezean, iragazkiak azken 30 egunetan jasotako fakturak kargatzen ditu.

Iragazkia aplikatuz egin nahi izanez gero bilaketa, nahikoa da iragazkian nahi diren datuak betetzea. Gehienez ere urte natural bateko aldien arabera iragazi daiteke.

Iragazkiko edozein datu aldatzean, kontsultaren emaitza husten da.

Hauetara iragazkiak dituen eremuak:

- **Sailaren izena:** Fakturak iragazteko erabili nahi den sailaren izena idatzi behar da.
- **Faktura zenbakia:** Aurkitu nahi den fakturaren zenbakia idatzi behar da.
- **Jaulkitze data: noiztik:** Egutegian aukeratu behar da data. Data hau soilik aukeratuz gero, aukeratutako jaulkitze data edo geroagokoa duten fakturak bakarrik bilatuko ditu aplikazioak.
- **Jaulkitze data: noiz arte:** Egutegian aukeratu behar da data. Data hau soilik aukeratuz gero, aukeratutako jaulkitze data edo lehenagokoa duten fakturak bakarrik bilatuko ditu aplikazioak.
- **Fakturak:** Fakturak hautatzeko aukerak, errorea sortu duten ala ez kontuan hartuta.
  - **Guztiak:** Aurreko iragazki guztiak betetzen dituzten fakturak.
  - **Erroreak dituztenak:** Bidaltzean errore larriak zein oso larriak eragin dituzten fakturak.
  - **Errorerik gabekoak:** Faktura zuzenak, errorerik eragin ez dutenak.

[Bilatu](#)

Iragazkian nahi diren datuak sartu ondoren, *Bilatu* botoia sakatu behar da fakturen zerrenda iragazita bistaratzeko.

## 6.2 Bidalitako fakturen zerrenda

Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke Bilatu 🔍




JASOTZE DATA	JAILKITZE DATA	SAILA/ZENBAKIA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, GUZTIRA	EGOERA
✓ 2025/10/17 13:25:44	2025/10/17 13:25:43	RCA / 5	Factura TBAI	183,68	Jasota
✗ 2025/10/17 13:23:07	2025/10/17 13:23:06	RCA / 4	Factura TBAI	128,2	Jasota
✓ 2025/10/14 14:21:03	2025/10/14 14:19:49	DFA_20255 / 16	SUSTITUCION	500	Jasota
✓ 2025/10/13 17:44:57	2025/10/13 17:44:31	DFA_ / 93	03 gakoaren proba. REBU	5.000	Jasota

Aukeratutako iragazki irizpideen arabera aurkitutako fakturen zerrenda erakusten da.

Datu hauek agertzen dira zerrendan:

- Jaulkitze data.
  - Faktura saila/zk.
  - Fakturaren deskribapena.
  - Fakturatutako zenbatekoa, guztira.
  - Egoera.
- Egoera hauetako bat izan daiteke:
5. Jasota
  6. Baliogabetuta (fakturaren baliogabetzea jaso dela adierazten du)
  7. Ordeztua (faktura ordeztu duen geroagoko faktura bat dagoela adierazten du) - Esaterako, ordeztu fakturak.
  8. Zuzendua (faktura aldeengatik edo ordezkatzeko bidez zuzendu duen faktura zuzentzaile bat dagoela adierazten du).

Faktura bakoitzean, ikono baten bidez adierazten dira honako hauek:


-  TicketBAI aplikazioan behar bezala jasotako faktura, eta baliozkotze guztiak betetzen ditu.
-  TicketBAI aplikazioan jasotako faktura, errore larriak dituena. Aitorpenetarako laburpenean kontuan hartzen da.
-  TicketBAI aplikazioan jasotako faktura, errore oso larriak dituena. EZ da aitorpenetarako laburpenean kontuan hartzen.


Taulako lerro bakoitzaren eskuinaldean, hautatutako fakturaren egoeraren arabera erregistro bakoitzean egin daitezkeen ekintzak erakusten dira:


- **Jasoa, aldeengatik zuzendua edo ordeztua:** Fakturak jaso, aldeengatik zuzendu edo ordeztu egin badira, honako aukera hauek daude:




**Fakturaren xehetasunak:** Aukera honek fakturaren eduki osoa kontsultatzeko moduan erakusten du.


 **Erroreen xehetasunak:** Aukera honek faktura jasotzean antzeman diren erroreak erakusten ditu.

 **Aldatu :** TicketBAIko Xml fitxategian jasotako datu batzuk aldatzea ahalbidetzen du, baldin eta aldaketek fakturari eragiten ez badiote. Fakturari eragiten dioten datuak aldatu behar izanez gero, faktura zuzentzailea egin behar da. Aldaketak baimentzeko baliozkotzeak zorrotzak dira, eta ez dira onartzen erroreak/oharrak dituzten fakturak.

 **Baliogabetu:** Aukera hau faktura FakturArabak jaulki ez badu bakarrik agertuko da. Fakturak baliogabetu daitezke, araudiak horretarako aukera ematen badu.

- **Baliogabetua edo ordezkatzeko bidez zuzendua:** Baliogabetutako edo ordezkatzeko bidez zuzendutako fakturen kasuan, ezin da faktura editatu.


 **Fakturaren xehetasunak:** Aukera honek fakturaren eduki osoa kontsultatzeko moduan erakusten du.

 **Erroreen xehetasunak:** Aukera honek faktura jasotzean antzeman diren erroreak erakusten ditu.

1 - 5 de 5 |< < > >| Ikur honek zerrendako orrien artean mugitzeko aukera ematen du.

### 6.3 Bidalitako fakturak Excelera esportatzea

Zerrendan agertzen diren faktura guztien informazioa Excel fitxategi batean esporta daiteke.

	Hasiera	Amaiera	Hautaketa 1.000 faktura baino gehiagokoa bada, fakturak 1.000ko multzoetan deskargatzen joan daiteke, Excel botoia hurrenez hurren sakatuz, fakturen guztizko kopurua osatu arte.
	1	1000	

## 7 FAKTURAREN XEHETASUNAK

Jasotako fakturari buruzko informazio guztia kontsultatzeko moduan ikusteko aukera ematen du. Informazioa hainbat panel zabalgarritan dago antolatuta.

### Fakturaren xehetasunak

#### Fakturaren datuak

Saila  
DFA\_RECTIFLGP Faktura zenbakia  
2 Jaukitze data eta ordua  
2023/04/20 10:45:25

Jaukitzailea  
XIB94907Y-TICKETBAI DOS CIUDADANO

Fakturaren egoera  
Jasotako faktura

Faktura mota  Zuzentzaile osoa  Zuzentzaile erraztua

#### Bezeroa

BEZROA	HELBIDEA	POSTA KODEA
88408497Q NORIEGA LUIS	C/ Santander	39005

Honako honak jaukitako faktura: **88408497Q NORIEGA LUIS**  
Jaukitzaileak berak jaukitako faktura

#### Fakturaren goiburua

##### Zuzenketaren datuak

Faktura zuzentzailearen kodia  
Faktura zuzentzailea: BEZari buruzko Foru Arauko 80. artikuluko Hiru Faktura zuzentzaile mota  
Ordezkoa

Oinarri zuzendua 0 Kuota zuzendua 0

FAKTURAREN SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAUKITZE DATA
DFA_OSATU	1	2022/09/27

#### Fakturaren datuak

Eragikotaren deskribapena \*  
factura rectificativa que se va a quedar malamente Eragikotaren data

BEZaren araubidaren gailoa  
12 - Negozio lokalaren errentatzeko eragiketak, ez- zergapekoak

#### Xehetasun lerroak

DESKRIBAPENA	KOPURUA	UNITATEKO ZENBATEKOA	DESKONTUA	GUZTIRA
43	6	5 €	0 €	30 €

#### Banakapenak

##### Oina

Zenbatekoa, guztira  
30

OHARRAK

INF. OSAGARRIA

ITZULI

Gainera, fakturaren historikoa kontsulta daiteke izen bereko atalean. Jasotako bidalketa bakoitzeko, jasotzearen XMLa eta TicketBAIren erantzunaren XMLa deskarga daitezke.

**ERROREAK**

Faktura jasotzean errorerik sortu bada, ERROREAK botoia sakatuta, fakturako erroreen pantailara sartzen da.

INF. OSAGARRIA

Botoi hau sakatuta, [Informazio osagarria](#) pantailan sartzen da, kontsultatzeko moduan. TiketBAIko OSATU zerbitzuaren bidez BIH Berehalako Informazio Horniketara informazio osagarria bidali bada bakarrik dago eskuragarri.

ITZULI

Botoi hau sakatuta, fakturak kontsultatzeko pantailara itzultzen da.

## 8 FAKTURAREN ERROREAK



Amaitu

FAKTURAK KONTSULTATZEA    ERROREAK KONTSULTATZEA    DATU FISKALAK

Fakturaren erroreak

Sello: DFA\_    Faktura zenbakia: 209    Jakinarazi data eta ordua: 2025/03/26 07:16:47

Erroreak

Zerbitzua	Errorea
Jasotzea	009 - 043 Kateatzea balidatu / Fakturak ez du kateatzea egiaztatzen: Aurreko fakturaren datuak ez dira zuzenak

ITZULI

Pantaila horretara fakturen zerrendatik sar gaitzke, *Erroreen xehetasunak* aukeraren bidez, edo fakturaren xehetasunetik, *ERROREAK* botoia sakatuz.

Faktura edo fakturaren baliogabetzea jasotzean sortu diren erroreak erakusten dira bertan, eta honako hauek agertzen dira: zerbitzua, kanpoko eta barneko kodeak eta erroreen deskribapenak.

## 9 ZUZENDU: FAKTURA ALDATZEA

Pantaila horretara bidalitako fakturen zerrendatik sar gaitzke, "Aldatu" aukeraren bidez. Edo erroreak kontsultatzeko ataletik.

Honen bidez, TicketBAIko XML fitxategian jasotako datu batzuk alda daitezke, baldin eta aldaketek fakturari eragiten ez badiote. Fakturari eragiten dioten datuak aldatu behar izanez gero, faktura zuzentzailea egin behar da. Aldaketak baimentzeko baliozkotzeak zorrotzak dira, eta ez dira onartzen erroreak/oharrak dituzten fakturak.

Edizio formularioaren barruan, atal hauek daude: fakturaren datuak, bezeroa, fakturaren goiburua, fakturaren datuak II, xehetasun lerroak, banakapenak eta oina. Atal bakoitzaren izenburuaren gainean sakatuta zabaltzen eta ixten dira atalak. Hasiera batean, *Banakapenak* atala zabaldu gabe egongo da.

### 9.1 Fakturaren datuak

Atal honetan, jasotako faktura mota zuzendu daiteke.

Fakturaren datuak		
Saila T	Faktura zenbakia 27	Jaulkitze data eta ordua 2023/03/07 19:38:06
Jaulkitzailea 99999990S-ALAVA CIUDADANO AUTONOMO		
Fakturaren ogoera Jasotako faktura		
Faktura mota <input type="radio"/> Osoa <input checked="" type="radio"/> Erraztua		

### 9.2 Bezeroa/Hartzailea

Atal honetan, honako informazio hau alda daiteke:

- **Bezeroaren datuak.** Edozein *identifikazio motatako* bezeroaren informazioa alda daiteke.  
Hauak dira alda daitezkeen datuak: *Identifikazio mota, Zenbakia eta Herrialdearen kodea.*

Bezeroa

Identifikazio mota \*      Zenbakia \*  
BEZ IFZ      HRI2345678903      Herrialdearen kodea

Abizenak eta izena/Sozietatearen izena  
nombre HRI2345678903

Helbidea      Posta kodea  
Direccion      01009

- **Zenbait hartzaile.**
- **Honako honek jaulkitako faktura.**

### 9.3 Faktuaren goiburua

Atal honetan, honako informazio hau alda daiteke:

- Faktura arruntak. Faktura mota honetan:  
*Faktura erraztu baten ordeztu jaulkitako faktura* jartzen duen tokian marka jarri/kendu daiteke.  
Fakturak gehitu, editatu eta ezaba daitezke ordezkaturako fakturen zerrendan.

Fakturaren goiburua

Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura

Faktura ordezkatuak

FAKTURAREN SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAILKITZE DATA
2023	12	2023/03/09

- Faktura zuzentzaileak.  
Faktura zuzentzailearen kodea eta mota edita daitezke.  
Faktura zuzentzailearen mota *Ordezkatzeko* bada, oinarria, kuota eta zuzendutako errekargu kuota edita daitezke.  
Fakturak gehitu, editatu eta ezaba daitezke zuzendutako fakturen zerrendan.

**Fakturaren goiburua**

Faktura erraztua ordezteko jaukitako faktura

**Zuzenketaren datuak**

Faktura zuzentzailearen kodia \* Faktura zuzentzaile mota \*

Faktura zuzentzailea: zuzenbidean oinarritutako akatsa eta BEZaren Foru Arauaren 80.artikuluko Bat, Bi eta Sei Ordezkoa

Oinarri zuzendua \* Kuota zuzendua \* Errekargu kuota zuzendua

0 0 0

Faktura zuzenduak + GEHITU

FAKTURAREN SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAIKITZE DATA
DFA_	113	2023/02/15

## 9.4 Fakturaren datuak II

Atal honetan, honako informazio hau alda daiteke:

- **Eragiketaren deskribapena**
- **BEZaren araubidearen gakoa**
- **Xehetasun lerroak:** *Kopurua*, *Unitateko zenbatekoa*, *Deskontua (€)* eta *Guztizkoa* eremuak editatzeko aukera ematen du.

**Fakturaren datuak**

Eragiketaren deskribapena \* Eragiketaren data

Faktura

BEZaren araubidearen gakoa \*

01 - Araubide orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu

BEZaren araubidearen gakoa

BEZaren araubidearen gakoa

**Xehetasun lerroak**

DESKRIBAPENA	KOPURUA	UNITATEKO ZENBATEKOA	DESKONTUA	GUZTIRA
sdf	1	222 €	0 €	268,62 €

## 9.5 Banakapenak

Atal honetan, honako informazio hau alda daiteke:

- **Banakapen mota**

**Banakapenak**

Banakapen mota  Faktura mota  Eragiketa mota

Zergapeko eragiketa salbuetsia

ARRAZOIA	ZERGA OINARRI SALBUETSIA
BEZaren Foru Arauaren 23. eta 24. artikuluek salbuetsia	20 €

Zergapeko eragiketa salbuetsi gabe mota

SALBUETSI GABEKO FAKTURA MOTA	ZERGA OINARRIA	ZERGA TASA	ZERGAREN KUOTA	BE TASA	BE KUOTA	BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN MARKA (*)
Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe	20 €	% 10	2 €	% 1,4	0,28 €	

Eragiketa ez-zergapetua

ARRAZOIA	ZENBATEKOA
Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik	135 €

- **Zergapeko eragiketa salbuetsia**  
Arkatza sakatuz, salbuespen arrazoia eta zerga oinarri salbuetsia edita daitezke.

Zergapeko eragiketa salbuetsia

ARRAZOIA	ZERGA OINARRI SALBUETSIA
BEZaren Foru Arauaren 23. eta 24. artikuluek salbuetsia	20 €

- **Zergapeko eragiketa salbuetsi gabea**  
Arkatza sakatuz, salbuetsi gabeko eragiketa mota, zenbatekoak eta eragiketa motak alda daitezke, eta baliokidetasun errekgua duen eragiketa edo araubide erraztuko eragiketa dela markatu ala marka kendu.

Zergapeko eragiketa salbuetsi gabe mota

SALBUETSI GABEKO FAKTURA MOTA	ZERGA OINARRIA	ZERGA TASA	ZERGAREN KUOTA	BE TASA	BE KUOTA	BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN MARKA (*)
Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe	20 €	% 10	2 €	% 1,4	0,28 €	

- **Eragiketa ez-zergapetua**  
Arkatza sakatuz, zergapean ez egotearen arrazoia eta zenbatekoa edita daitezke.

Eragiketa ez-zergapetua

ARRAZOIA	ZENBATEKOA
Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik	135 €

## 9.6 Oina

Atal honetan, honako informazio hau alda daiteke:

- **Jasandako atxikipena (€)**
- **Kostuaren zerga oinarria**

Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua

Oina			
Zenbatakia, gutira	177,28	Jasandako atxikipena	26,25
		Kostuaren zerga oinarria	

## 9.7 Formularioko botoiak

### 9.7.1 Aldaketa bidaltzea

 **BIDALI ALDAKETA**

Botoi hau sakatuta, fakturaren aldaketak bidaltzen dira TicketBAIko Zuzendu-Aldatzea zerbitzuaren bidez.

Bidalketa amaitu ondoren, emaitzaren baieztapena agertuko da pantailaren goiko aldean.

- Bidalketa behar bezala amaitzen bada, baieztapen mezu berde bat agertuko da.

#### Fakturaren xehetasunak

✓ Faktura behar bezala aldatu da. ✕

- Fakturak datu okerren bat badu edo bidalketan erroreren bat badago, faktura ezetsi egingo da eta erroreen deskribapena gorriz agertuko da.

#### Fakturaren xehetasunak

! 78-OHARRA: Errorea gertatu da negozioa balidatzean [Xehetasun batukaria ez dator bat banakapen batukariarekin] ✕

### 9.7.2 Informazio osagarria bidaltzea

 **INF. OSAGARRIA**

Botoi hau sakatuta, Informazio osagarria inprimakira sartzen da.

## 10 OSATU: INFORMAZIO OSAGARRIA GEHITZEA/BALIOGABETZEA

Fakturaren informazio osagarria

Fakturaren datuak		
Jasakitzailoa 99999990S	Izena eta abizenak (Sozietatearen izena) FICTICIO ACTIVO CIUDADANO	
Sala DFA_recargo	Faktura zenbakia 3	Jasakitzu data 2023/05/15

Datu osagarriak		
Kanpoko erreferentzia	BEZari lotutako higiezinaren eskualdaketaren zenbatekoa	
Ordez kariaren IFZ	Hartzailearen ordez kariaren IFZ	Fakturazio akordioaren erregistro zk.
Oinordotutako erakundearen IFZ	Izen-abizenak/oinordotutako erakundearen sozietatearen izena	
<input type="checkbox"/> Kupoia		
Higiezinak		

[+ GEHITU](#)

Formulario honen bidez, fakturaren informazio osagarria gehitu/baliogabetu daiteke, AETren Berehalako Informazio Hornidurarako (BIH). Informazio hori TicketBAiko OSATU zerbitzuaren bidez bidaltzen da.

TicketBAIk ez du informazio hori berehala bidaltzen BIHra. Bidalketa prozesatu arte, ezin da informazio osagarria berriz aldatu.

Aplikazioko bi tokitatik sar daiteke pantaila honetara:

- 1- *Faktura aldatu* edo *Zuzendu* aukeratik. Editatzeko moduan sartzen da pantailan, informazio osagarria bidali edo baliogabetu ahal izateko.
- 2- Fakturaren xehetasunetik. Kontsultatzeko moduan sartzen da pantailan, aurretik erregistratutako informazio osagarria ikusteko.

### 10.1 Informazio osagarria

Datu osagarrien atalean, erabiltzaileak informazio hau bete dezake:

- Kanpoko erreferentzia
- BEZari atxikitako higiezinaren eskualdaketaren zenbatekoa
- Ordez kariaren IFZ
- Hartzailearen ordez kariaren IFZ
- Fakturazio akordioaren erregistro zk.

*Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua*

- Oinordetutako erakundearen IFZ eta izen-abizenak
- Kupoia
- Higiezinaren zerrenda, bakoitzaren egoera eta katastroko erreferentzia adierazita (BEZaren araubidearen gakoak 12 edo 13).
- Fakturak hau(ek) dokumentatzen d(it)u: bermea ordainduta gordailu fiskaletik ateratako erregaiei entrega/k

Datu osagarriak ^

Kanpoko erreferentzia BEZari lotutako higiezinaren eskualdaketa zenbatekoa

Ordezkararen IFZ Hartzailearen ordezkariaren IFZ Fakturazio akordioaren erregistro zk.

Oinordetutako erakundearen IFZ Izen-abizenak/oinordetutako erakundearen sozietatearen izena

Kupoia

Higiezinak + GEHITU

➤ Bidali informazioa ITZULI

## 10.2 Formularioko botoiak.


### 10.2.1 Bidali informazioa



Botoi hau sakatuta, fakturaren informazio osagarria bidaltzen da AFARA.

Bidalketa amaitu ondoren, emaitzaren baieztapena agertuko da pantailaren goiko aldean.

- Bidalketa behar bezala amaitzen bada, baieztapen mezu berde bat agertuko da.



- Fakturak datu okerren bat badu edo bidalketan erroreren bat badago, bidalketa ezetsi egingo da eta erroreen deskribapena gorriz agertuko da.

#### Fakturaren informazio osagarria

232-ERROREA: Errorea gertatu da negozioa balidatzean [Kupioia duen faktura, baina ez da R1 edo R5 hartailerik gabe motako zuzentzailea] ×

### 10.2.2 Baliogabetu informazioa



Botoi hau sakatuta, fakturaren informazio osagarriaren baliogabetzea bidaliko da AFARA.

Baliogabetzea bidaltzen amaitu ondoren, emaitzaren baieztapena agertuko da pantailaren goiko aldean.

- Baliogabetzearen bidalketa behar bezala amaitzen bada, baieztapen mezu berde bat agertuko da.

#### Fakturaren informazio osagarria

✓ Fakturaren informazio osagarria behar bezala baliogabetu da ×

## 11 ERROREAK KONTSULTATZEA

Erroreak kontsultatzeko, goiko menuko aukera hautatu behar da.

ERROREAK KONTSULTATZEA

### 11.1 Iragazkia

Behin sartuta, goiko aldean iragazki bat bistaratuko da, bilaketak iragazi ahal izateko. Behealdean, adierazitako iragazkiaren arabeko erroreen zerrenda dago.

#### Erroreak kontsultatzea

Jaukitze datazaitik \*  
2025/04/01



Jaukitze datazaitik arte




Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke

Bilatu 🔍


Besterik adierazi ezean, uneko hilabetean jasotako fakturetan antzemandako erroreak erakutsiko ditu.

Fakturen jaulkitze daten tarte baten arabera iragaz daiteke; tarte hori urte natural beraren barruan egon behar da.

Iragazkiko edozein datu aldatzean, kontsultaren emaitza husten da.

**Bilatu**  Iragazkian nahi diren datuak sartu ondoren, *Bilatu* botoia sakatu behar da iragazkiaren arabeko erroreen zerrenda bistaratzeko.

## 11.2 Erroreen zerrenda

Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke **Bilatu** 

OHARRA	FAKTURA KOPURUA
^ 009 - 044 Kateatzea balidatu / Fakturak ez du kateatzea egiaztatzen: Ez dago aurreko fakturarik	2
^ 010 - 080 Faktura zuzenduak edo ordezkatuak balidatu / Errorea fakturan: Ordezkatutako edo zuzendutako faktura ez da existitzen	3

1-2 2(o)tik |< < > >|

Aukeratutako iragazki irizpideen arabera aurkitutako erroreen zerrenda erakusten da.


Datu hauek agertzen dira zerrendan:

- **Errorea:** kanpoko kodea – barneko kodea eta deskribapena.
- Erroreak eragindako **fakturen kopurua**.

Erroreen zerrendako lerro bakoitzean klikatuta, errore hori duten fakturen zerrenda agertuko da.

OHARRA	FAKTURA KOPURUA
∨ 008 - 040 Fakturaren sinadura balidatu / Errorea gertatu da sinatzailearen ziurtagiria balidatzean: Errorea gertatu da IZENPE plataformaren zerbitzuan	2

SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAILKITZE DATA	
DFA_	122	2023/03/07	⋮
DFA_	121	2023/03/07	 Fakturaren xehetasunak

1-2 2(o)tik |< < > >|

Eta faktura bakoitzetik fakturaren xehetasunetara sar daiteke, informazioa ikusteko.

SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAILKITZE DATA	
DFA_	122	2023/03/07	⋮
DFA_	121	2023/03/07	📄 Fakturaren xehetasunak

1-2 2(0)tik |< < > >|

Baliogabetuta edo ordezkatzeko bidez zuzenduta ez dagoen faktura bakoitzean XML TicketBAI fitxategian jasotako datu batzuk alda daitezke, baldin eta aldaketek fakturari eragiten ez badiote.

## 12 AITORPENETARAKO ZERRENDA

TBAI fitxategietan jasotako informazioarekin, zerga informazio garrantzitsua duten fakturen zerrenda sortzen da, eta errore oso larriak dituzten adierazten da gorriz.

Aitorpenetarako zerrenda da aitorpenetarako laburpenera bidaltzen den informazioaren jatorria, eta hori 303/390 ereduetako laukitxo bakoitzean jasotako informazioarekin alderatu daiteke.

Adi! Aurreko eskaeraren ostean fakturazioan aldaketaren bat gertatu bada (adibidez, lehenagoko aldi bateko eragiketa data duen faktura bat jaulki bada), aldaketak jasoko dituen zerrenda berri bat eskatu behar da.

Behin eskuratuta, Excel dokumentu bat deskarga daiteke, informazioarekin lan egiteko aukera ematen duena.

Bidalitako fakturen informazioarekin Excel fitxategi bat sortzea.



### 12.1 Aitorpenetarako zerrenda eskatzea

Zerrenda sortzeko eska daiteke, nahi den sortzapen aldia adierazita eta *Eskatu* botoia sakatuta.

#### Aitorpenetarako zerrenda

\* Egunean bost eskaera bakarrik ogin daitezke  
\* Jaukitzaile bakoitzeko gahianez ora hamar eskaera gordetako dira. Eskaera berriak ogin ahal, historikoak ezabatuko dira.

#### Sortzapen aldia

Urtekoa

Hiruhilekoa

Hilekoa

Guztiak

Hila

Apirila

Urtea

2025

Bilatu 

Eskatu 

#### Eskaeren zerrenda

EKITALDIA	ALDI MOTA	ALDIA	ESKAERA DATA	EGOERA	FITXATEGIA
-----------	-----------	-------	--------------	--------	------------

Ez da emaitzarik aurkitu


Behin eskaera eginda, *Gauzatzeke* egoeran dauden eskaeren zerrendan agertzen dela ikusiko duzu.

*Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua*

Sortze prozesuak minutu batzuk iraun ditzake.

Amaitu den egiaztatzeko, *Bilatu* botoia sakatu behar da. Behin fakturak eskuratuta, ikusiko duzu *Amaituta* egoeran agertzen dela eskaeren zerrendan eta sortutako Excel fitxategia deskarga dezakezula.

Eskaeren zerrenda

EKITALDIA	ALDI MOTA	ALDIA	ESKAERA DATA	EGOERA	FITXATEGIA	
2023	Hilekoa	11	2023/11/10	Amaituta	W_99999990S_2023_ME_11_1699623360270.zip	 



Deskargatu zerrenda



Ezabatu eskaera

Eskaera guztiak ikusteko, *Guztiak* aukera hauta daiteke sortzapen aldian, eta *Bilatu* botoia sakatu.

## 12.2 Aitorpenetarako zerrendaren edukia

Excel fitxategi bat da, eta honako informazio hau jasotzen du:

	Zutabea	Azalpena
A	Ekitaldia	ERAGIKETAREN DATARI dagokion likidazio hilabetea eta ekitaldia esleituko dira. Salbuespenak. JAULKITZE DATARI dagokion ekitaldia eta likidazio aldia esleituko zaizkie honako hauei: - R1, R2, R3, R5 faktura zuzentzaileak (14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak). - F1, F2 eta R4 motako faktura negatiboak (banakapen guztiak negatiboak, VT zenbateko ez-zergapekoa izan ezik), eta 14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak.
B	Hilabetea (sortzapen aldia)	
C	Jaulkitze data	
D	Eragiketaren data	
E	Saila	
F	Faktura zk.	
G	Lehenengo faktura	Sailaren eta jaulkipen dataren arabera multzokatutako faktura erraztuetan, multzoaren lehenengo eta azken fakturak erakusten dira, jarritako jaulkitze orduaren arabera Faktura osoetan, zutabe hauek hutsik geratzen dira.
H	Azken faktura	
I	Hartzailearen herrialdea	

J	Hartzailearen id.	Hartzailearen IFZ edo identifikazio kodea	
K	Izen-abizenak/Sozietatearen izena	Hartzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena	
L	Hartzailearen posta kodea		
M	Fakturaren deskribapena	Fakturaren deskribapena	
N	1 araubidearen gakoa	BEZaren araubideen eta zerga garrantzia duten eragiketen gakoak	
O	2 araubidearen gakoa		
P	3 araubidearen gakoa		
Q	Banakapen mota		Fakturaren araberako banakapena
		EB	Ondasunak ematea. Eragiketaren araberako banakapena
		PS	Zerbitzuak ematea. Eragiketaren araberako banakapena
R	Eragiketa mota	S1	Zergapekoa eta salbuetsi gabea, SPARik gabe (subjektu pasiboaren alderantzizkatzea)
		S2	Zergapekoa eta salbuetsi gabea, SPARik gabe (subjektu pasiboaren alderantzizkatzea)
		E1	Zergapekoa eta salbuetsia, 20. art.
		E2	Zergapekoa eta salbuetsia, 21. art.
		E3	Zergapekoa eta salbuetsia, 22. art.
		E4	Zergapekoa eta salbuetsia, 23. eta 24. art.
		E5	Zergapekoa eta salbuetsia, 25. art.
		E6	Zergapekoa eta salbuetsia, beste arrazoi batzuk
		RL	Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik
		OT	Ez-zergapekoa, 7. eta 14. art., beste
		IE	Ez-zergapekoa, baina atzerriko zerga
VT	Hirugarrenen salmentak, ordeztutako zenbatekoa		
S	Oinarria/Zenbatekoa	Zerga oinarria / Ez-zergapeko zenbatekoa	
T	Mota	Zerga tasa	
U	Kuota	BEZaren kuota	
V	BEren tasa	Baliokidetasun errekarquaren tasa	
W	BEren kuota	Baliokidetasun errekarquaren kuota	
X	Fakt. zenb. guzt.	Fakturaren zenbatekoa, guztira	
Y	Faktura mota	F1	Faktura osoa
		F2	Faktura erraztua
		F3	Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura
		R1S	Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Zuzenbidean eta BEZari buruzko Foru

			Arauaren 80 Bat, Bi eta Sei art. oinarritutako errorea
		<b>R1I</b>	Aldeengatik zuzendutako faktura. Zuzenbidean eta BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Bat, Bi eta Sei art. oinarritutako errorea
		<b>R2S</b>	Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Hiru artikulua
		<b>R2I</b>	Aldeengatik zuzendutako faktura. BEZari buruzko Foru Arauaren 80 Hiru artikulua
		<b>R3S</b>	Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. BEZaren Foru Arauaren 80 Lau artikulua
		<b>R3I</b>	Aldeengatik zuzendutako faktura. BEZaren Foru Arauaren 80 Lau artikulua
		<b>R4S</b>	Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Gainerakoak
		<b>R4I</b>	Aldeengatik zuzendutako faktura. Gainerakoak
		<b>R5S</b>	Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea. Faktura erraztuetan.
		<b>R5I</b>	Aldeengatik zuzendutako faktura. Faktura erraztuetan.
<b>Z</b>	<b>BE/ERRAZ</b>	<b>Baliokidetasun errekguaren araubidean edo araubide erraztuan jaulkitako faktura den zehazten duen marka</b>	
AA	Jasandako atxikipena		
AB	Oinarri zuzendua	Ordezkapen bidezko faktura zuzentzaileetan, zuzendutako zenbatekoak adieraz daitezke.	
AC	Kuota zuzendua		
AD	BEren kuota zuzendua		
AE	Honek zuzendua:	Zuzenketa egin duen fakturaren identifikazioa adierazten da (saila, faktura zenbakia, jaulkitze data)	
AF	Hau ordezten/zuzentzen du:	Zuzendu den fakturaren identifikazioa adierazten da (saila, faktura zenbakia, jaulkitze data)	
AG	Errorea	BAI- Balidazio erroreak ditu EZ- Ez du balidazio errorerik	
AH	Fakturaren egoera	Baliogabetua	Faktura baliogabetze fitxategi baten bidez baliogabetu da
		Zuzendua	Faktura zuzendu da
		Zuriunea	Gainerako kasuak (ez dago ez baliogabetuta, ez zuzenduta)

(Q, R, S, T, U, V, W eta Z zutabeak: faktura beraren banakapen mota desberdinak dira. Gainerako zutabeak faktura bereko lerro guztietan errepikatzen dira)

Kontuan hartu beharrekoak:

- Faktura erraztuak jaulkipen sailaren eta jaulkipen dataren arabera multzokatuta erakusten dira, eta faktura osoak, berriz, banaka.
- Faktura batek hainbat lerro izan ditzake: Faktura batek barne hartzen baditu BEZaren/baliokidetasun errekaruaren zerga tasa desberdinetan edo eragiketa mota desberdinetan zergak ordaintzen dituzten eragiketak, lerro bat sartzen da banakapen mota, zerga tasa edota eragiketa mota bakoitzeko. Faktura bakoitzari buruzko informazio komuna (ekitaldia, aldia, jaulkitze data, eragiketa data, fakturaren identifikazioa, hartzailearen identifikazioa, fakturaren deskribapena, BEZaren gakoak, fakturaren zenbateko osoa, faktura mota, jasandako atxikipena, zuzendutako oinarria, zuzendutako kuotak, zeinek zuzendua, zein zuzentzen den, erroreak) lerro bakoitzean errepikatzen da, errazago identifikatzeko.
- Atzealde zuria/urdina txandaka erabiltzen da faktura baten eta beste baten lerroak bereizteko.
- Errore oso larriak dituzten fakturak gorritz ateratzen dira. Eta, gainera, *Errorea* zutabearen adierazten da.
- Baliogabetutako fakturak ere agertzen dira, eta, gainera, *Fakturaren egoera* zutabearen adierazten da.
- F3 motako fakturak (faktura erraztu baten ordeztu jaulkitako faktura) ere agertzen dira erregistro liburuan. Horiek ez dira kontuan hartu behar likidazioetan, sortzapena aldeztatik igorritako faktura erraztuarekin gertatzen baita.
- Faktura bat zuzentzailea bada eta zein faktura zuzentzen duen adierazi bada, *Hau ordeztzen/zuzentzen du*: zutabearen informazioa izango da.
- Faktura bat zuzendu bada, *Honek zuzendua*: zutabearen informazioa izango da.

## 13 AITORPENETARAKO LABURPENA

Atal honetan, TicketBAIko **Aitorpenetarako laburpena** aplikazio berriaren funtzionamendua zehazten da, bai eta TicketBAI fitxategiek emandako datuei aplikatutako arauak ere, sortutako BEZaren 303/390 ereduetauko laukien edukia eta beste zerga batzuetarako informazio gehigarria kalkulatzeko, hala nola PFEZerako edo sozietateen gaineko zergarako.



**Zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturretan jasanarazitako kuota guztiak behar bezala aitortzea, TicketBai fitxategia (XML formatuan) ezetsi den edo zuzentzeko erroreak dituen alde batera utzita.**

Laburpen honetan islatzen den informazioa TicketBAI fitxategietan jaso diren fakturei buruzkoa baino ez da. Beraz, TicketBAI betebeharraren mende ez dauden eragiketak/fakturak badaude edo sistemak baztertu baditu, ez dira kalkuluetan jasoko.

Laburpen honetan, dagokion ereduaren lehen autolikidazioaren (likidatu gabe) informazioa ere erakusten da.

Ordezkoa aurkeztu bada, eta Administrazioak onartu badu, azkena erakutsiko da, ordezkoa dela adierazita.

### 13.1 Datuen eskuratze data

Aitorpenetarako laburpen eskaeran, arreta berezia jarri behar da, batetik, kontsulta egin nahi dugun aldian, eta, bestetik, zein egunetarainoko datuak nahi ditugun.

## Aitorpenetarako laburpena

### Sortzapen aldia

Urtekoa

Hiruhilekoa

Hilekoa

Hila

Uztaila

Urtea

2024

Bilatu 

**Aitorpenetarako laburpena** \*\* Egun honetara arte sartutako datuetatik lortutako aitorpenetarako laburpena: 2024/01/31

Sortzapen aldiak *Urtekoa*, *Hiruhilekoa* edo *Hilekoa* izan daitezke, eta kontsultatu nahi den urtea, hiruhilekoa edo hilabetea aukeratu behar da.

Bilatu 

Iragazkian nahi diren datuak sartu ondoren, "Bilatu" botoia sakatu behar da.

*Datuak Aitorpenetarako laburpena* atalean, kalkulurako erabilitako azken fitxategia (alta, aldaketa, fakturaren baliogabetzea) noizkoa den adierazten da.

Kontuan hartu behar da ez direla kalkuluetan islatuko, **bi lanegun** pasatu arte, faktura berriak edo dagoeneko bidalita dagoen baten aldaketak edo baliogabetzeak.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da hau:

- Eskatutako aldiaren kalkuluak informazio koadroan agertzen den informazioarekin egiten dira: *Kontuan hartzen dira **uuuu/hh/ee** datara arte (hura barne) sartutako datuak.*
- Kalkulatzen ari den autolikidazioaren aldiari dagokion edozein fitxategi bidali, aldatu edo baliogabetu bada aurreko kalkulu dataren ondoren, beste kalkulu bat egingo da, hala eskatuz gero.
- Hori dela eta, TicketBAI aplikazioak sortzen dituen aitorpenetarako zerrendek kontuan hartzen dituztenez eskatzen diren unera arte sistemak jasotako fitxategi eta aldaketa guztiak, desfasea izan daiteke zerrendetako informazioaren eta *Aitorpenetarako laburpena* erabilerak eskaintzen duenaren artean.

## 13.2 Aldiaren kalkulua

ERAGIKETAREN DATARI dagokion likidazio hilabetea eta ekitaldia esleitzen dira. Zenbait salbuespen daude, eta horiei BIDALKETA DATARI dagozkion likidazio ekitaldia eta aldia esleitzen zaizkie:

*Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua*

- R1, R2, R3 eta R5 faktura zuzentzaileak (14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak).
- F1, F2 eta R4 motako faktura negatiboak (banakapen guztiak negatiboak, VT zenbateko ez-zergapekoa izan ezik), 14, 15 ez den BEZaren araubidearen gakoa dutenak.

**Faktura zuzentzaileei eta faktura negatiboiei esleitutako *Ekitaldia* eta *Aldia* zutabeak gutxi gorabeherakoak dira. Zergadunaren erantzukizuna da likidazio ekitaldi eta aldi zuzenak zehaztea.**

 Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke Bilatu 🔍

JAILKITZE DATA	SAILA/ZENBAKIA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, GUZTIRA	EGOERA
2024/05/08 12:42:17	2024-A / 24000075	Factura TicketBAI	1.210	Jasota
2024/05/08 12:31:06	2024-A / 24000074	Factura TicketBAI	1.210	Jasota
2024/05/08 12:24:13	2024-A / 6	Factura TicketBAI	1.210	Jasota
2024/05/08 12:12:35	2024-A / 36	Factura TicketBAI	1.149,5	Jasota
2024/05/07 12:00:15	2024-A / 24000073	Factura TicketBAI	1.210	Jasota
2024/05/07 11:58:39	2024-A / 35	Factura TicketBAI	1.149,5	Jasota
2024/05/07 11:47:55	2024-A / 34	Factura TicketBAI	1.149,5	Jasota
2024/05/07 11:45:15	2024-A / 33	Factura TicketBAI	6,9	Jasota

### 13.3 Irizpide komunak

Laburpen honen kalkuluetan ez dira inola ere kontuan hartzen hauek:

- Errore larriak dituzten fakturak, aparteko laukitxoetan jakinarazten baitira.
- Faktura erraztuak ordeztuko jaulkitako fakturak.
- Faktura baliogabetuak.
- Sistemak atzera botatutako fakturak.
- 2024tik aurrera 14 gakoarekin jaulkitako fakturak.

I. eranskinean ikus dezakezu zein diren errore oso larriak.

**Zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturretan jasanarazitako kuota guztiak behar bezala aitortzea, TicketBai fitxategia (XML formatuan) ezetsi den edo zuzentzeko erroreak dituen alde batera utzita.**

Bestalde, TicketBAI betebeharra ez duten diru sarrerak, zeinen fakturarik ez baita igorri, ez dira sartuko egiten diren kalkuluetan; beraz, halakoetan, kalkuluak ez dira bat etorriko gutzizko diru sarrerekin. Adibideak:

- PFEZean kapital higiezinaren etekin diren lokalen alokairuak.
- TicketBAI betebeharra EZ duen hartzaile batek jaulkitako fakturak.
- Onartutako salbuespenak.

Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua

## 13.4 Aitorpenetarako laburpena bistaratzea

Laburpenean, 303/390 eredurako hautatutako aldiko autolikidazioaren kalkuluak erakusten dira sortutako BEZari dagokionez, bai eta PFEZaren edo sozietateen gaineko zergaren aitorpenak egiteko baliagarria den bestelako informazio gehigarria ere. Kalkulu horiek TicketBAira bidalitako informazioa oinarri hartuta egiten dira.

Helburua da TicketBAIra bidalitakoa BEZaren aitorpenarekin eta beste zerga batzuekin bat datorrela erkatzeko laguntza ematea. Datuak bat ez badatoz, aitorpenetarako zure zerrenda lor dezakezu Fakturak kontsultatzea zerbitzuan, eta aldeak zein diren aztertu.

**BEZaren araubide orokorreko eragiketen eta beste araubide batzuetako eragiketen** (baliokidetasun errekgua, araubide erraztua...) arabera bereizten da informazioa.

Autolikidazioen datuak eta TicketBAIra iritsi den informazioaren arabera kalkulaturako datuak bistaratzen dira. Autolikidazioaren datuak likidatu bada soilik bistaratuko dira.

**SORTUTAKO BEZ-A**

AURKEZTUTAKO AUTOLIKIDAZIOA	TICKETBAIREN ARABERA KALKULATUA
AUTOLIKIDAZIOKO INFORMAZIO LAUKIAK	TICKETBAIREN ARABERAKO INFORMAZIO LAUKIAK

Oharra: Zergadunaren erantzukizuna da autolikidazioak aplikatu beharke araudia betetzea, TicketBAI fitxategia ezetsi den edo adoszein motatoko erroreak dituen alde batera utzita.

1. oharra: Zergadunak egindako eta jakanarazitako eragiketen BEZa jasotzen da.  
2. oharra: Lauki batzuk gris agertzen dira, datuak gabe, ez baitago informazio nahikorik horiek betetzeko.

TICKETBAIKO BESTELAKO INFORMAZIOA atala:

**TICKETBAIKO BESTELAKO INFORMAZIOA**

INFORMAZIO GEHIGARRIA, SALBUESPENA DELA-ETA BEZ-ETIK SALBUETSITAKO FAKTURAK
INFORMAZIO GEHIGARRIA, ZERGAPEAN EZ EGOETAGATIK BEZ-ARI ATXIKITA EZ DAUDEN FAKTURAK
INFORMAZIO GEHIGARRIA, EZ-ZERGAPEKO EDO SALBUETSITAKO ERAGIKETEN OINARRI ZUZENDUAK
INFORMAZIO GEHIGARRIA, AURREKO KALKULUETAN EZ DIRA JASO ERRORE OSO LARRIAK DITUZTEN FAKTURAK. **Errore oso larriak dituzten fakturen gutxiak

BESTE ARAUBIDE BATZUK atala:

**BESTE ARAUBIDE BATZUK**

ARAUBIDE ERRAZTUA
NEKAZARITZA ETA ARRANTZAREN ARAUBIDE BEREZIA

### 13.4.1 Errore oso larriak dituzten fakturak

Errore oso larriak dituzten fakturak BEZaren araubidearen arabera multzokatzen dira.

*Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua*

### 13.4.2 Araubide orokorra

Errorerik gabeko fakturak eta errore oso larriak dituztenak bereizten dira; azken horiek modu independentean erakusten dira, ez baitira kalkuluetan kontuan hartzen.

Araubide orokorreko eragiketetan oso errore larriak dituzten zergapeko eta salbuetsi gabeko fakturak badaude, **Sortutako BEZaren autolikidazioa** atalaren amaieran agertuko dira.

SORTUTAKO BEZ-AREN AUTOLIKIDAZIOA					
<small>** Laukion zerbakiak 303 eroduari dagozkie</small>					
<b>Araubide orokorra</b>					
Zerga oinarria		Tasa		Kuota	
210	1.000,00 €	211	% 0,00	212	0,00 €
01		02	% 4,00	03	
201		202	% 5,00	203	
204	11,00 €	205	% 10,00	206	1,10 €
207	242.606,27 €	208	% 21,00	209	50.947,33 €
<b>Baliokidetasun errenergua</b>					
Zerga oinarria		Tasa		Kuota	
10		11	% 0,50	12	
213		214	% 1,40	215	
219		220	% 1,75	221	
216	6.940,00 €	217	% 5,20	218	360,88 €
<b>Errore larriak dituzten eta aurreko koadroetan jaso ez diren zergapeko eta salbuetsi gabeko fakturak</b>					
<small>** Faktura horiek zuzendu egin behar dira (zuzentzailea/zuzendu aldatzea, kasuaren arabera)</small>					
Zerga oinarria		Kuota		Baliokidetasun errenergua kuota	
3.896,45 €		387,75 €		0,00 €	

Fitxategietako erroreak zuzentzeko, larriak zein oso larriak izan (oso larriak ez dira aldiaren laburpenean kontuan hartzen), **Fakturak kontsultatzea** zerbitzuan ikus daitezke erroreak dituzten fakturen xehetasunak.

Aplikazio horretan bertan, Excel formatuan deskarga daiteke aldi horretako aitortpenen zerrenda. Errore oso larriak dituzten fakturak gorritz markatuta daude, eta, gainera, "Errorea" eremuaren arabera iragaz daitezke.

Fakturak kontsultatzeko aplikazioaren eskuliburua

INFORMAZIO GEHIGARRIA. AURREKO KALKULUETAN SARTU EZ DIREN ERROREDUN FAKTURAK. \*\* Errore larriak dituzten fakturen guztizkoak

Oinarria	6.896,45 €	Kuota	387,75 €	Balokid. orrakarguaren kuota	0,00 €
Oinarri zuzendua	0,00 €	Kuota zuzendua	0,00 €	Balokid. orrakarguaren kuota zuzendua	0,00 €
				Faktura kopurua	8

\*\* Errore larriak dituzten faktura guztiak adierazten dira, baita sortutako BEZaren autolikidazioaren koadroan adierazitako zenbatekoak ere.  
\*\* Faktura horiek zuzendu egin behar dira (zuzentzailea/zuzendu aldatzea, kasuaren arabera)

Atal honetan, erroreak dituzten faktura guztiak erakusten dira, bai araubide orokorreko zergapekoak eta salbuetsi gabeak (aurreko errore koadro batean sartuak), bai salbuetsiak eta ez-zergapekoak.

### 13.4.3 Beste araubide batzuk

Araubide berezi bakoitzaren atalean edo beste batzuetan araubide horri dagozkion erroreak erakusten dira.

### 13.4.4 Excelera esportatzea

Pantailako informazioa Excelera esporta daiteke, dagokion botoia sakatuz.

## 14 FAKTURAK BALIOGABETZEA

Pantaila horretara fakturen zerrendatik sar gaitezke (menuko "Fakturak kontsultatzea" aukera), "Baliogabetu" aukeraren bidez.

Aukera hori faktura guztietarako dago erabilgarri, honako hauetarako izan ezik:

- FakturArabaren bidez bidalitako fakturak. FakturArabaren bidez baliogabetu behar dira.
- Egoera hauetan dauden fakturak:
  - Baliogabetua
  - Zuzendua
  - Ordeztua

Faktura baliogabetzeko aukera hautatu ondoren, fakturaren xehetasuna eta sinatzen den fitxategiaren edukia (XML) agertuko dira ("Sinatu beharreko fitxategiaren edukia" atala).

- Bi botoi agertuko dira:
  - "Baliogabetu" botoia
- Baliogabetzeko prozesuarekin jarraitzeko.
  - "Itzuli" botoia

Fakturaren zerrendara itzultzeko.

"Baliogabetu" botoia hautatzean, baliogabetzea berresteko pantaila agertzen da. Hartan galdera guztiei erantzun, eta baliogabetzeko arrazoia adierazi behar da.

Galderei emandako erantzunak baliogabetzeko aukera ematen badu, aukera hauetako bat hauta daiteke:

- "Sinatu eta baliogabetu" botoia: Elektronikoki sinatzen da TicketBAIko baliogabetze fitxategia. Prozesua behar bezala amaitzen bada, informazio mezu bat agertzen da.
- "Utzi" botoia: Botoi horrek bertan behera uzten du fakturaren baliogabetzearen bidalketa, eta fakturen kontsultaren zerrenda erakusten du berriro.

## I. ERANSKINA: ERRORE OSO LARRIAK

Zenbatzen ez diren errore oso larriak. **Aitorpenetarako laburpenean, erroreen baturan islatzen dira.**

<https://web.araba.eus/documents/d/araba/akatsak-zuzentzeko-laguntza-dokumentua-v-11-pdf>